

**2008ko OTSAILAREN 12ko EZ OHIKO UDALBATZARRA**  
**PLENO EXTRAORDINARIO DE 12 DE FEBRERO DE 2008**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**

**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, RAFAEL ECHEVERRÍA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M<sup>a</sup> SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

Inor ez.

**Tokia: BERAko Herriko Etxea.**

**Eguna: 2008-02-12**

**Ordua: 20:30**

**Bilera-mota: ez ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 2008-02-12

Hora: 20:30

Tipo sesión: extraordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- EAE-ANV-REN EGOEARARI BURUZ-KO MOZIOA.**

**1.- MOCIÓN SOBRE LA SITUACIÓN DE EAE-ANV.**

*Alkateak gertatukoengatik egoera berezia dagoela azaldu du eta haiek gai zerrendan aurkeztutako idatzia irakurri du, ondoko testua izanik:*

*El Alcalde manifiesta que con lo sucedido hay una situación especial y pasa a leer el escrito incluido en el orden del día, siendo el texto el siguiente:*

**----“ UDAL OSOKO BILKURARI**

*EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakita Espainiar estatuak berriro erasotzen du Euskal Herria. Eraso honek independentismoa kriminalizatzea du helburu, independentziari ateak ixtea. Espainiar estatuak herri honen geroari itxi nahi dizkio ateak, gatazkaren*

*konponbidea ukatu eta herri honen eskubideak urratzen jarraitu. Hori da, berriro ere, PSOEko gobernuak herri honi eskeintzen diona: errepresioa eta konstituzioa.*

*Eraso honek ageriago uzten du pairatzen dugun demokrazia eza. Espainiar legeak eta justizia deitzen duten horrek euskal herritarren eskubideak ukatu eta urratzeko besterik ez du balio. Espainiar konstituzioaren eskutik ez dago euskal herritar izaterik, ez dago eskubiderik, ez dago Euskal Herririk.*

*Une erabakigarria bizi dugu, gure herriaren borondatea ukatzen jarraituko duen Konstituzioari atxiki edo Euskal Herriari erabakitzeko eskubidea aitortu eta gatazkari behin betiko konponbidea eman. Hori da jokoan dagoena, eta horretara dator azken eraso hau. Konponbidearen alde borrokatzen duen independentismoari eraso egiten zaio herri honi iruzur berria egin nahi zaiolako. Une hauetan PSOE eta PNV iruzurra prestatzen ari dira, herri honen eskubideak ukatzen dituen markoa erreformatu nahi dute. Independentziari ateak itxi, gatazkari konponbidea ukatu eta alderdi interesak lehenetsiz markoa iraunarazi nahi dute.*

*Ez gaude iruzurrak onartzeko prest. Herriak konponbidea eskatzen du, gure etorkizuna libreki erabaki nahi dugu. Ukazioa, inposizioa, errepresioa, konstituzioa. Guztien gaineratik herriari hitza ematea, herriak aukera politiko guztien artean, independentzia barne, erabaki dezan, horretan datza nozitzen dugun gatazkaren konponbidea. Marko berri bat behar du gure herriak, marko demokratiko bat.*

*Aipatu guztiari jarraituz honako mozioa aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:*

*1.-Udal honek oso larritzat jotzen du Espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea. Erabaki hau Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu, Euskal Herriaren independentziari ateak ixtea.*

*2.-Udal honek herritarren borondatean du oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duen lege edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.*

*3.-Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest, hortaz, bere babes osoa eskaintzen die EAE-ANV udal taldeko kideei eta erabaki honetatik eratorri daitezkeen ondorioei aurre egiteko konpromiso irmoa hartzen du. Hori horrela mozioarekin batera aurkezten den neurrien zerrenda onartzen du udal honek.*

*4.-Udal honek proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikatzen du, independentzia barne. Hori da, gainera, Euskal Herriak bizi duen gatazkari konponbidea emateko bidea, euskal herritar guztiak proiektu guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatuko duen marko demokratiko bat eraikitzea, hain zuzen ere.*

*5.-Udal honek erabaki honi aurre egiteko greba orokorra deituko du, salbuespen egoeraren kontra, lemapean, eta herritar guztiak parte hartzera deitzen du.*

*6.-Onartutakoaren berri emango zaie herritar guztiei zein hedabideei.*

**EAE-ANV UDAL TALDEAREN ESKUBIDEAK BERE OSOTASUNEAN BERMATUAK IZAN DAITEZEN HARTZEN DIREN NEURRIEN ZERRENDA**

**1-EAE-ANV Udal taldeak zein hautetsi bakoitzak dituen eskubide guztiak bermatuak izango dira.**

**2-EAE-ANV Udal taldeari bere izena eta izaera errespetatuko zaio.**

**3-EAE-ANV Udal taldeak zein hautetsien udal jardueran era normalizatu batetan parte hartzeko aukera guztiak izango dituztela bermatuko da, beste udal talde eta hautetsiek izango dituzten berdinak, hain zuzen ere.**

**4-EAE-ANV Udal taldeko hautetsiek udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta era normalizatu batetan bete ahal izango dituztela bermatuko da.**

**5-EAE-ANV Udal taldeak zein hautetsiek beraien lana garatzeko dituzten udal tresna eta baliabide zein diru ekarpen guztiak bermatuko zaizkie.**

**6-Erabaki honen ondorioz EAE-ANV udal taldeak edo hautetsiek jaso dezaketen eskubide urraketa edota ondorioen aurrean udalak bere babes eta laguntza osoa eskainiko du.”-----**

**Horren ondoren honako adierazpenik, laburbilduz, egin dira:**

**Tras lo anterior, resumidamente, se producen las siguientes manifestaciones:**

**Helena Santestebanek:**

**Emendakina aurkeztu behar dute.**

**Aurkitu dira ez ohiko udalbatzarraren deialdian eta egoerak igual merezi du baina bakoitzak bere testua aurkeztu du, ados daude zenbait gauzekin baina denekin ez.**

**Helena Santesteban:**

**Presentan una enmienda total al texto.**

**Se han encontrado con la convocatoria de un pleno extraordinario y la situación igual lo merece pero cada uno ha presentado su texto, están de acuerdo con algunas cosas pero no con el total.**

**Ramon Elgorriagak:**

**Beste mozioa aurkezten ahal dute, EAE-ANV-k aurkeztutakoa bozkatu eta gero haiena.**

**Ramón Elgorriaga:**

**Pueden presentan otra moción, primero votar la presentada por EAE-ANV y luego la de ellos.**

**Jon Abrilek:**

**Ez diete aukerarik eman adosteko.**

**Jon Abril:**

**No les han dado ninguna opción para ponerse de acuerdo.**

**Ramon Elgorriagak:**

**Utzi bozkatzen bata eta gero bestea, bestela bakarrik mozio bat bozkatuko da eta euren**

**Ramón Elgorriaga:**

**Que les dejen votar una moción y luego la otra, sino solo se votará una y eso supone**

*hitza itzaltzen dute.*

**Jon Abrilek:**

*Egin den bezala ez dira formak, non dago errespetua ?*

**Ramon Elgorriagak:**

*Ilegalizatuak gelditu dira eta hitza kendu diote, nahi dute mozio hau tratatu.*

**Helena Santestebanek:**

*Ez zen deus ere gertatuko saiatu izan balira testu adostua egiten.*

**Ramon Elgorriagak:**

*Zer adostu behar dute, adostasunik nahi badute mozioa bozkatzea.*

**Helena Santestebanek:**

*Nahi dute saihestu berriro hauxe gertatzea, haiekin kontatu gabe mozioak tratatzeko sartzea.*

**Ramon Elgorriagak:**

*Ez dute (oposizioa) deus ere elkarrekin egin nahi, EAE-ANV-k mozioa aurkeztu du eta emendakinarekin ez diote uzten aurkeztutako mozioa bozkatzen.*

**M<sup>a</sup> Sol M. Tabernak:**

*Ados ez daudelako emendakina aurkeztu dute.*

**Ramon Elgorriagak:**

*Egoera grabea da: atxiloketak, partidua ilegalizatua .....*

*Eztabaida segitzen da lehengo terminoetan.*

*Azkenean, Jon Abrilek emendakina irakurri behar duela adierazi du eta irakurtzeari ekin dio.*

*Irakurketa bukatu ondoren, Ramon Elgorriagak zera gehitu du:*

*Euren mozioa bozkatzea nahi dute eta bai, ez edo abstentzioak adieraztea. Aukera dute (oposizioa) beste mozioa aparte aurkezteko.*

**Jon Abrilek:**

*quitarles la palabra.*

**Jon Abril:**

*Como lo han hecho no son formas. ¿Dónde está el respeto?*

**Ramón Elgorriaga:**

*Han quedado ilegalizados y les quitan la palabra, quieren que se trate su moción.*

**Helena Santesteban:**

*Tampoco pasaría nada si se hubiera intentado hacer un texto consensuado.*

**Ramón Elgorriaga:**

*Qué van a consensuar, si quieren consenso que voten la moción.*

**Helena Santesteban:**

*Quieren evitar que pase de nuevo lo mismo, sin contar con ellos presentar mociones para su deliberación.*

**Ramón Elgorriaga:**

*No quieren hacer nada juntos (la oposición), EAE-ANV ha presentado una moción y con la enmienda no les dejan votar la moción presentada.*

**M<sup>a</sup> Sol M. Taberna:**

*Porque no están de acuerdo han presentado la enmienda.*

**Ramón Elgorriaga:**

*La situación es grave: detenciones, el partido ilegalizado .....*

*Continúa la discusión en los mismos términos.*

*Finalmente, Jon Abril manifiesta que va a leer la moción e inicia la lectura de la misma.*

*Tras la lectura, Ramón Elgorriaga añade lo siguiente:*

*Ellos quieren que se vote su moción y que se diga sí, no o abstención. Tienen (la oposición) la alternativa de presentar una moción aparte.*

**Jon Abril:**

*Emendakina aurkezten dute.*

*Emendakina bozkatu ondoren, hauxe da emaitza:*

- *Aldeko botoak: 7 (EA, EAJ-PNV eta Aralar).*

- *Aurkako botoak: 4 (EAE-ANV).*

*Beraz, EA, EAJ-PNV eta Aralarrek aurkeztutako emendakina onartu da, honako erabakia onetsi delarik:*

**Demokrazian onartezina da alderdiak legez kanpo uztea. Kasu hau, are ulergaitzagoa bilakatzen du aurreko hauteskundeetan eskatu zitzaizkion legezko baldintza guztiak bete zituzten alderdiak direlako orain ilegalizazio prozesu baten aurrean daudenak; helburu elektoralistarekin hartutako erabakia dela bistan geratzen da.**

**Entzutegi Nazionalaren erabakia edozein pertsonak hauteskundeetara aurkezteko duten eskubidearen eta nahi duten alderdia bozkatzeko duten eskubidearen kontrakoa da. Beraz, onartu ez daitekeen eskubideen kontrako erasotzat jotzen dugu. Beste behin ere, azpimarratu nahi dugu erabaki horrek nahikoa gaiztotuta dagoen giro politikoa gehiago gaiztotzea besterik ez duela ekarriko.**

**Batasunako 14 kideren atxiloketa ikaragarrikeri politikotzat jotzen dugu. Errepresio dinamika honek baketik erabat urruntzen gaitu, eta bakerik nahi ez dutenen tesiak indartu. Errepresioa errepresio gehiagorekin moldatu nahi dutenen jarrera onartezina da demokrazian.**

**Aspaldiko errepresio mailarik altuena erabiltzen ari da Estatua, herritarren borondatearen kontra, eta oinarritzko eskubide demokratikoak urratuz, lotsarik gabe. Espainiako Gobernuak eta PSOEek, gainera, hauteskundeak irabazteko modu partidis-**

*Presentan una enmienda.*

*Se somete a votación la enmienda con el siguiente resultado:*

- *Votos a favor: 7 (EA, EAJ-PNV y Aralar)*

- *Votos en contra: 4 (EAE-ANV).*

*En consecuencia, se aprueba la enmienda presentada por EA, EAJ-PNV y Aralar adoptándose el siguiente acuerdo:*

En democracia es inadmisibile que se ilegalicen partidos. Se trata de un paso todavía más incomprensible al tratarse de partidos que además ya pasaron por todos los filtros legales que se le exigieron en las anteriores elecciones, y no se entiende que ahora se enfrenten a un posible proceso de ilegalización, en nuestra opinión, totalmente electoralista.

La decisión de la Audiencia Nacional va en contra del derecho legítimo de las personas de presentarse a las elecciones y de votar a la opción política que cada una de las personas crea oportuno. La conculcación de estos derechos supone un grave ataque contra los derechos humanos, ataque que de ninguna manera podemos admitir. Consideramos que esta decisión no aporta nada a la convivencia de este país, y que no sirve más que para crispas aún más el deteriorado clima político. La detención de los 14 miembros de Batasuna es una atrocidad política. Esta dinámica represiva nos aleja de un objetivo de paz, a la vez que refuerza las tesis de los que no la desean. La apuesta de combatir la represión por medio de más represión es inadmisibile en democracia.

El Estado está llegando a los niveles más altos de represión, contra la voluntad de los ciudadanos y ciudadanas de este pueblo, y vulnerando descaradamente los más elementales derechos democráticos. El Gobierno del Esta-

**tan eta propagandistikoan erabiltzen ari da kriminalizazio bolada hau, guztiz baztergarria eta salagarria, bide batez.**

**Atxiloketa hauekin konponbidea urrutiago dago. Badirudi PSOE, Garzonen laguntza ordainezinarekin, espetxeak buruzagi politiko-koz betetzeko prest dagoela. Pertsona horiei ez diete delitu zehatzik leporatu, euskal gizartearen zati bat ordezkatzeari baizik.**

**Neurri hauek, bakegintzari begira, oztopoak ezarri besterik ez diotela egiten uste dugu.**

**Horregatik guztiagatik, honakoa onartu dugu:**

**1.- Baltasar Garzon epailearen EHAK eta EAE-ANV taldeen jarduna bertan behera uzteko hartutako erabakia deitoratu egiten dugu, eta gure elkartasuna agertzen diegu alderdi hauetako kideei. Erabaki hau gaitzesten dugu, antidemokratikoa eta electoralista delako.**

**2.- Batasunako kideen atxiloketekin Espainiako Gobernuak hartu duen zoramen errepresiboa gaitzetsi egiten dugu. Beste behin, jarrera hori deitoratu eta salatu beharrean gara, eta atxilotuekiko elkartasuna agertzearekin batera, euren berehalako askatasuna eskatzen dugu.**

**3.- Espainiako gobernuari Alderdien legea bertan behera utz dezan exijitu nahi diogu, hauteskundeetan pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak aurkeztea eragozten duen lege antidemokratikoa delako eta alderdi baten legez kanporatzearen aurrean demokrazia aldarrikatu behar delako, ideologikoki hurbilago edo urrunago egonda ere.**

**4.- Bakea bideratzeko baliagarri diren ekimenak babesten ditugu, bai eta bide demokratikoen alde egiten dutenak, azken urteotan gertatzen ari denaren kontrara.**

do y el PSOE están instrumentalizando de manera partidista y propagandista estos episodios de criminalización, lo cual es totalmente rechazable y condenable.

Estas detenciones dificultan aún más la solución del conflicto. El PSOE, con la inestimable colaboración de Garzón, parece decidido a llenar las cárceles de dirigentes políticos, personas a las que no se les imputan hechos delictivos concretos, sino sólo el de representar políticamente a una parte de la sociedad vasca.

Estas decisiones son gravísimas en la medida en que suponen un obstáculo para la pacificación.

Por ello el Ayuntamiento de Bera acuerda:

1.- Rechazar la decisión del juez Baltasar Garzón de suspender cautelarmente los partidos políticos EHAK y ANV y su actividad, y mostrar nuestra solidaridad a los integrantes de estos partidos. Rechazar esta decisión por tratarse de una decisión antidemocrática y electoralista.

2.- Condenar la sinrazón represiva que el Gobierno del Estado está llevando a cabo con la detención de los miembros de Batasuna. Nos encontramos nuevamente en la obligación de rechazar y denunciar esas actuaciones y, a la vez que manifestamos nuestra solidaridad con las personas detenidas, exigimos su inmediata puesta en libertad.

3.- Exigir al Gobierno español que derogue la Ley de partidos, una ley profundamente antidemocrática que no permite la participación en unas elecciones de todas las personas, todos los proyectos y todas las ideas y porque ante la ilegalización de un partido se ha de reivindicar la democracia, se este más cerca o más lejos ideológicamente.

4.- Apoyar todas las acciones que vayan encauzadas a lograr la paz, a ampliar los cauces democráticos y no reducirlos a la mínima expresión, como está sucediendo estos

últimos años.

**5.- Estatu espainiarrari ideien kriminalizazioa alde batera utzi, eta adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubidea eta askatasun ideologikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzala eskatzen diogu.**

5.- Instar al estado español a que abandone la criminalización de las ideas y tome las medidas oportunas para garantizar la libertad de expresión, el derecho a reunión y la libertad ideológica.

**6.- Erabaki honen berri komunikabideen bidez zabaltzea.**

6.- Difundir esta decisión en los medios de comunicación.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:00etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:00 horas.

**O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE**  
Josu Irtzoki Agirre

**IDAZKARIAK/ LA SECRETARIA**  
Pilar Chueca Intxusta